



# DURANGOKO UDALA

---

EUSKARA ARLOKO ZERBITZUAK



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

# 1. NORTZUK GARA

Euskara arloa Herrigintza sailari atxikita dagoen unitatea da. Bere egiteko nagusia da euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta indartzea Udal eta herri mailan. Helburu nagusia hori izanik, euskara arloak Euskara Planak baliatzen ditu egiteko nagusiak erdieste aldera.

Batetik, Euskara Plana Udal Administrazioan daukagu. Xede nagusia da, euskara, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izatea udal administrazioan.

Zerbitzu hizkuntza diogunean, udal administrazioak herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar dituela esan nahi da. Hau da, euskara hizkuntza ofiziala denez, nahitaez, presente egon behar du herritarrei zuzendutako ahozko zein idatzizko komunikazio guztietan.

Lan hizkuntza diogunean, aldiz, udal barruko eginkizunez dihardugu. Hau da, euskarak lan-lerro eta ardatz izan behar du langileen udal barruko eginkizunetan.

Bestetik, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana udalerrian daukagu. Hainbat ekimen antolatzen ditugu herriko ikastetxe, kulturgile, dendari-ostalari, elkarte eta bestelako eragileekin. Esaterako: Haur jaioberrien kanpaina, Euskara indartzeko saioak ume etorkinekin, Merkataritzan euskara sustatzea, Euskararen eguna, Lankidetza Udal Liburutegi eta San Agustin Kultur Gunearekin, Bertsolaritza saioak, Julene Azpeitia literatura lehiaketa, Zinea Euskaraz haur eta gazteentzat, Euskara weben kudeaketa, Berbalagun,... Eta diru-laguntzak deialdiak ere bideratzen ditugu, betiere, euskara sustatzearen inguruan: errotuluak euskaraz, euskara bekak, euskara sustatzeko ekimenak eta euskarazko argitalpenak. Eta bi hitzarmen ere baditugu Anboto aldizkariarekin eta Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin.

## 2. HELBURUAK

Udaleko euskara arloak honako helburu hauek lehenesten ditu:

1. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izatea.

2. Euskararen transmisioa bermatzea: haurrak, gazteak, helduak.

3. Kirol taldeetako jardueretan euskararen erabilera sustatu

4. Kirol ekitaldi publikoetan euskararen presentzia bermatu

5. Udal kiroldegietako eskaintza euskaraz izan dadila bermatu

6. Merkataritzan euskarazko ahozko eta idatzizko erabilera indartu

7. Merkataritzan hizkuntza paisaian euskararen erabilera indartu.

8. Etorri berriei euskara irakatsi eta euskal kulturara hurbildu daitezela sustatu

9. Euskarazko kulturaren transmisioa bermatu eta sorkuntza bultzatu

10. Hedabideak eta IKTak: euskararen erabilera indartu

### 3. ARLOKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

| ZERBITZUA                          | HARTZAILEAK                                 | EKINTZAK                                            |
|------------------------------------|---------------------------------------------|-----------------------------------------------------|
| Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz | Haurrak<br>Ikastetxeak<br>Elkarteak         | Jardueren diagnostikoa                              |
|                                    |                                             | Diru-laguntzak eskaini                              |
| Euskararen transmisioa             | Haurrak<br>Gazteak<br>Helduak euskalduntzea | <i>Eman giltza</i> egitasmoa                        |
|                                    |                                             | <i>Bularretik mintzora</i>                          |
|                                    |                                             | <i>Familian euskaraz olgetan</i>                    |
|                                    |                                             | <i>Mundu bat bertso</i> egitasmoa                   |
|                                    |                                             | Uda topera, ludoteka...                             |
|                                    |                                             | Berbalagun                                          |
|                                    |                                             | Euskara bekak                                       |
|                                    |                                             | Ikastaro bereziak                                   |
| Kirola                             | Kirol taldeak<br>Udal kiroldegia            | <i>Euskara eta kirola eskutik</i><br>hitzarmena     |
|                                    |                                             | Diru-laguntzak                                      |
|                                    |                                             | Aholkularitza (Guk euskaraz)                        |
|                                    |                                             | Euskararen presentzia handitu<br>udal kiroldegietan |
| Merkataritza                       | Merkatariak<br>Ostalariak                   | <i>Euskara eskaintzarik onena</i><br>egitasmoa      |
|                                    |                                             | Guk euskaraz egitasmoa                              |
|                                    |                                             | Aholkularitza zerbitzua                             |
|                                    |                                             | Diru-laguntzak: errotuluak,...                      |

|                                 |                                                                                      |                             |
|---------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|
| Etorkinak                       | Etorri berriak<br>Haur etorri berriak<br>Etorkinen familiak                          | Aisa proiektua              |
|                                 |                                                                                      | Euskarazko errefortzuak     |
|                                 |                                                                                      | Familia laguna proiektua    |
| Kultura                         | Kultura taldeak<br>Kultura eragileak<br>Haurrak<br>Gazteak<br>Helduak<br>Sortzaileak | Bertso saioak               |
|                                 |                                                                                      | Zinea euskaraz              |
|                                 |                                                                                      | Haur Literatura Aretoa      |
|                                 |                                                                                      | Diru-laguntzak              |
|                                 |                                                                                      | <i>Durango ezagutu weba</i> |
|                                 |                                                                                      | Julene Azpeitia lehiaketa   |
| Euskarazko hedabideak eta IKTak | Herri komunikabideak<br>Udaleko komunikabideak                                       | Hitzarmena Anbotorekin      |
|                                 |                                                                                      | Aholkularitza zerbitzua     |
|                                 |                                                                                      | Diru-laguntzak              |

## 4. KONTAKTUA

| ZERBITZUA                           | HELBIDEA                          | TELEFONOA    | E-MAIL                                                               |
|-------------------------------------|-----------------------------------|--------------|----------------------------------------------------------------------|
| Euskara saila                       | Zeharkalea, 3. 48200. Durango     | 94 603 00 13 | <a href="mailto:euskara@durango.eus">euskara@durango.eus</a>         |
| Euskararen telefonoa (Intxaurrondo) | Laubideta kalea 6. 48200. Durango | 630 47 43 32 | <a href="mailto:gukeuskeraz@durango.eus">gukeuskeraz@durango.eus</a> |

Euskara Saila  
**HERRIGINTZA ARLOA**



**DURANGO**  
Garena eginez Vivir y convivir